

**Nire aitaren fusila**

**Hiner Saleem**

*Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide*

2004

Alberdania

### **Mutiko kurdu baten testigantza bizia**

"Ni artean mutiko bat besterik ez nintzen, ordea". Hala esaten digu Azad Xero Selimek bere kontakizunean zehar, harik eta amaieran esaten digun arte: "Eta ni, Azad, ez naiz harrezkero mutiko bat."

Harrezkero mutiko bat ez izan arren, mutiko baten logikatik eta mutiko baten sentimenduetatik idatzia da, alabaina, kontakizuna, haurtzaroan hasi eta gaztetan herritik alde egin behar duen arterainokoa. Ezinbestean, bizimoduaren gogorrak hartara beharturik, heldutasunera ohi baino lehen heltzen den mutikoaren testigantza dugu jasoan liburu honetan.

Gauza jakina da, Agota Kristofek *Koaderno Handian* erakutsi zigunez, egoera gogorretan, gerra-egoeretan, haurrek egundoko indarra, buru-argitasuna eta kemena erakusten dutela. Hala erakusten du Azadek ere egoera zailetatik onik ateratzeko eta kosta ahala kosta Europara iritsi eta, aitaren borondatea betez, ikasketak burutu ahal izateko.

Gauza jakina da, era berean behin adin batetik aurrera ku-ku egiten digula barruan daramagun haurrak. Hiner Saleem idazleari ku-ku egin dion haur horrek idatzia da liburu hau. Eta horrexegatik da samurra egoera guztiz gogorrak izan arren, horrexegatik darabil umore eta ironia fin bat, batere kaustikoa ez dena. Eta horrexegatik dario maitasuna kontakizunari: maite du bere hizkuntza, maite ditu beretarrak eta maite du bere lurraldea. Arrebatzat dauzka, esate baterako, Kurdistango mendiak.

Umetan sentitu bezalaxe azalduko dizkigu bere sentimenduak, oinarrizko zentzumenei lotuak: "Bolboraren usaina kitzikagarria zen, gizon usaina." Ume baten ikuspegitik erreparatuko diogu, halaber, nazioarteko politikaren zentzugabekeriari, kurduak behin eta berriro salduta utziko dituen horri. Baita desesperoari ere: "Arma zerura begira jarri nuen, Jainkoari begira, eta tiroak bota nituen." Etsita, nornahiren laguntza eskatzeraino: "gure irrati klandestinoak soilik entzuten zen, mundu osoari deika. Jesusi, Mahomari, Gandhiri, Budari, Abraham Lincoln-i...gure herriari laguntzera etor zitezten."

Dramazko egoera, Sadam Husseinek boterea hartzen duenetik are okerragoa bihurtzen dena. Balore sendoak jaso ditu, ordea, mutikoak txikitatik: ohorea, kurdu izatearen harrotasuna, *pexmergen*, heriotzari aurrez-aurre begiratzen diotenen ausardia eta, esaera kurduak dioenez, jakitea garrantzitsuena ez dela bizitza laburra ala luzea izatea, bizitza beroa izatea baizik.

Benetan maitatzeko eredurik ere ez zaio falta Azadi: "Egun batean, uzta guztia erreta galtzeko zorian zeukan batean, aitonak, Aixarekin ohean baitzegoen, ez zuen jaiki nahi izan, bien arteko zorientasuna ez eteteko".

Biziarazi egiten dizkigu Azadek, bertan bageunde bezala, bere haurtzaro-gaztaroko pasadizoak. Orain lehenengo pertsona, orain hirugarrena tartekatzen dituela, arin-arin kurrutzen du testuak. Ez du kalifikatzen, egoerak diren bezala deskribatu eta gauzak gertatu bezala kontatzera mugatzen da. Errealismo handia ematen dio horrek kontakizunari. Hala, bere aitaren ahotik edo kurduen irratitik entzundako esaldi baikorrak, itxaropenezkoak, bere horretan uzten ditu, errealitatearekin kontrastean. Errealismoa azken bururaraino eramaten da liburuaren azken orrialdean, kontakizuneko pertsonaia nagusien gaur egungo egoeraren berri ematen denean.

Gerraren, erbestearen, indarkeriaren errealitate gordinaren testigantza modu samurrean emana. Horra sekretua. Eta samurtasun horretan badu zerikusirik J.K. Igerabideren itzulpenak. Zuzenean euskaraz sortua dirudi kontakizun honek. Horrekin esanda dago.

Mikel Gramendia